

Bihotzak dio... itzuli herrira

GI 631

Urretxu-Zumarragako
Herri Opera

Sortzaileak

Gorka Hermosa, Jon Plazaola
Edurne Iturbe, Jon Maia.

Non: Urretxuko Ederrena
frontoia (Gipuzkoa).

Noiz: 2014/06/21

HERRI OPERA edota Arte agerraldizat iragarri zuten *GI 631* ikuskizuna. Opera baino, kultur ondasuna izatea nahi zuten sortzaileek, eta halaxe antzeman ere. Sarreran aipatu sortzaileak baino gehiago izan dira, baita egileak ere. 600 herriki-dek osatu dute *GI 631* ikusgarria.

Hainbat ezaugarrik bereizi egin dute Urretxu-Zumarraga eta itsasoa lotzen dituen *GI 631* delakoa, Urretxu-Zumarraga bereizten duen Urola ibaiaren ibian doana. Bi herriak batera aritzea *GI 631* operaren emaria da. Paradoxikoki bi herriok Urola Garaian izanda ere, Goierrikoak baitira euskarari dago-kionez.

GI 631 etorkizunetik (2383. urte-tik) heldutako ezohiko emaitza da: antzerkia, dantza, baleta, musika, argazkia, margoa eta bideoa nahasten dituen. Etorkizuna eta iragana bateratzen ditu, oraina bermatu aldera. Agerraldia antzezpenen bitartez sartzen gaitu (h)istori(o)an, munduaren ikuspegi futurista eskainiz: agertokitik nahiz publikoaren artetik mintzo diren aktoreak elkarri mokoka dihardute. Irimo edo Belokiko izan daitekeen gurutzea sinbolo nagusi harturik, Jainkoa dute hizpide: *Carta puebla* edo Hiri gutuna lapurtu dute... Nazio handiek (NH) nazio txikiak edo erresistentziakoak (R) menpe hartu dituzte. Apokalipsiari aurre egiten dioten erresistente zenbakidunak ezarritako ordenaren aurka gogor ari dira. Bahituak eta xantaiatuak izan arren,



MIKEL ASURMENDI

***GI 631* Gernikako Arbola plazan iragarrita zegoen, baina ekaitzaren mehatxuak Ederrena frontoira aldarazi zuen. (Operazaleak Iparragirre bardoaren begipean).**

izaki zenbakidun eta pastillaz elikatu izateari muzin egiten diote irmoki. Ez dute nahi ere errepidearen zenbaki soila izan. Berbarako, Antzuola herria horren hurbil izan arren, urrunago egon da iraganean urretxuar-zumarragarrengandik Zumaia baino. Iparragirre Bardoak etorkizunetik heldu diren 2014 eta 281 zenbakidun erresistenteak antzuolartzat hartzea adierazgarria izan zen.

Bien bitartean, mundu zaharretik mundu berrira, mendez mende, jendez jende, heldu den herri baten gogoa agertu dute artistek. Iraganeko Arabaolaza, Iparragirre, Belastegi, Busca Sagastizabal edota Esnaolaren emaitzak errekaetoak Urola ibaira nola, isurarazi dituzte egungo kantari, musikari, dantzari hala nola irudigileek Ederrena agertokian (bidenabar, Hermosa ederki ezkutatu zen Ederrenean).

Hermosa, Plazaola, Maia, Iturbe, Rivas, Goenaga, Azkarate, Sudupe, Agirrebaltzategi, Maroto, Aranguren, Apaolaza, Benitez, Aparicio edota Escudero dira. Ez dira aritu

direnen izen guztiak, ezta gutxiagorik ere. Ez da 600 lagun enaitza soilik ezta zenbait talderena ere. Herriarren inplikazioa zabala da. Adierazgarria da, Irrintzi eta Lurra dantza taldeak ekimen berean ikustea, baita musika klasikoa, popa, teknoa edota rockaz herri operaosatzea ere.

GI 631 Gernikako Arbola plazan iragarrita zegoen, baina ekaitzaren mehatxuak Ederrena frontoira aldarazi zuen azken unean. Eta hara, ekitaldi bakarra beharreen, bi eman zituzten egileek.

Oroitzapen bat azkenik: iraganean Ederrena frontoia Gernikako Arbola Plazan zegoen. 2014ko San Joan eta Santa Isabel jaien bezperetan mendia eta itsasoa lotzen dituen errepide baten izenak biak batu ditu: "Asko joanak gara, asko etorriak baina bihotzak dio", dio lelo berriak. Gehiago ere badio: "Zoaz eta zatoz herrira, bizi dedin oraindion!". ■

**Mikel
Asurmendi**

